

**2020rako ERRENTA ZERGAREN  
EZAUGARRI NAGUSIAK**

<b>Aitortzeko obligazioa</b>		<p>Ez dago aitortzeko obligazioa baldin eta:</p> <p>1) Urteko lan etekin gordinak 14.000 euroko kopurura iristen ez direnean.</p> <p>2) Kapitalaren etekin gordinak eta ondare irabaziak, salbuetsitakoak barne bi kasuetan, batera hartuta urtean 1.600 eurotik gorakoak ez badira.</p> <p>Urtean 14.000 eta 20.000 euro bitarteko lan etekin gordinak jasotzen dituztenak ere ez daude aitortzera behartuta baldin eta:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Lan etekinak ordaintzaile batetik baino gehiagotik jasotzen direnean, baldin eta bigarren eta gainerako ordaintzaileetatik jasotako zenbatekoen batura, zenbatekoaren hurrenkerari jarraituta, ez bada urtean 2.000 eurotik gorakoa.</li> <li>Lan etekinak ordaintzaile beregandik jaso arren, urtean lan kontratu bat baino gehiago sinatu denean edo kontratuan aurreikusitako epea behin amaiturik luzatu denean.</li> <li>Ezkontidearengandik edo bikote-lagunarengandik pentsio konpentsagarriak edo urteko mantenurako ordainketak jaso direnean.</li> <li>Erregelamenduz arautu diren beste egoera jakin batzuetan.</li> </ul>			
<b>Errenta salbuetsia</b>	<b>Desgaitasunagatik jasotako prestazioak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gizarte Segurantzak edo honen ordezkoko erabateko entitateek erabateko ezintasun iraunkorragatik edo baliaezintasun handiagatik zergadunari ordaindutakoak. Baita ere ezintasun iraunkor osoagatik jasotakoak, honako hauek betez gero: 55 urte baino gehiago izatea eta lanarengatik edo jarduerengatik 600 eurotik gorako diru sarrerarik ez lortzea, lehenengo urtean izan ezik.</li> <li>Era berean, salbuetsita egongo dira zahartasun eta elbarritasunari buruzko derrigorrezko aseguruaren pentsioak (SOVI delakoarenak), euren zergatia zergadunaren elbarritasuna denean.</li> </ul>			
	<b>Prestazio publikoak eta Gizarte Segurantzarenak</b>	Zurztasun pentsioak eta prestazio familiarak.			
	<b>Langabezia prestazioa</b>	Ordainketa bakarrekoko modalitatean.			
<b>Etekin irregularrak (lana, kapitala, jarduerak)</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>2 eta 5 urte bitartean: %60 - 5 urte baino gehiago: %50.</li> <li>Erregelamenduz irregulartzat kalifikatuak: %50 (lan harremana uztea adostua izanez gero lehenengo 60.000 euroei %40).</li> <li>Etekin irregularrak: lanekoentzat, jarduerentzat, kapital higigarrientzat eta higiezinentzat % murriztua lehenengo 300.000 euroei aplikatuko zaie bakarrik.</li> </ul>			
<b>Lanaren etekinak Hobaria</b>	<b>Orokorra</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Sarrerak – gastu kengarriak &lt; 7.500 € → 4.650 €.</li> <li>Sarrerak – gastu kengarriak 7.500 € eta 15.000 € bitartean badaude → 4.650 € - [0,22 [(Sarrerak – gastu kengarriak) – 7.500 €].</li> <li>Sarrerak – gastu kengarriak &gt; 15.000 € → 3.000 €.</li> </ul> <p>Bestelako errentak &gt; 7.500 €: 3.000 €</p>			
	<b>Minusbaliatuentzat gehitua</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>%100: langile aktibo desgaituen minusbaliotasun maila %33koa edo handiagoa eta %65etik beherakoa denean.</li> <li>%250: langile aktibo desgaituen minusbaliotasun maila %33koa edo handiagoa eta %65etik beherakoa denean, mugikortasun murriztua badute, eta orobat, langile aktibo desgaituen minusbaliotasuna %65ekoa edo handiagoa denean.</li> </ul>			
<b>Murrizpena EPSV</b>	<b>Erretiratu arte</b>	<p>Guztizko Muga: • 12.000 € guztira, ekarpenak + kontribuzioak kontutan izanik. ( Lehenik kontribuzioak hartuko dira kontutan.)</p> <p>Bakarkako Muga: • 8.000 € kontribuzio guztien baturarentzat eta 5.000 € ekarpen guztien batura.</p>			
	<b>Ezkontidearen edo izatezko bikote-lagunaren alde</b>	Mugak: • Ezkontidearen edo izatezko bikote-lagunaren oinarri ezargarri orokorraren errentak (1) < 8.000 € • 2.400 €			
	<b>Minusbaliatuen alde</b>	Mugak: • 8.000 € (ahaideek egindako ekarpenak) • 24.250 € (minusbaliatuak berak egindako ekarpenak)			
	<b>Kirolari profesionalak</b>	Mugak: • 24.250 €			
<b>Jarduera ekonomikoaren etekinak integratu eta konpentsatzea</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Jardueren etekin negatiboak jardueren etekin positiboekin bakarrik integra daitezke. Jardueren etekin negatiboak integratu gabe geratu badira, jardueren etekin positiboekin konpentsa daitezke hurrengo 30 ekitaldietan.</li> <li>Etekin negatiboak izan dituenak posible du horiek ekitaldian integratzea edo geroko ekitaldietan konpentsatzea bere jardueraren etekin positiboekin. Baterako aitortzean familia unitateko kide baten etekin negatiboak integratu edo konpentsatu daitezke beste kide baten etekin positiboekin.</li> </ul>			
<b>Murrizpena batera tributatzegatik</b>		<p>- Orokorra: 4.347€</p> <p>- Guraso bakarrekoko familia: 3. 776€</p>			
<b>Tarifa</b>	<b>Orokorra</b>	Oinarri likidagarria	Kuota osoa	Oinarri likidagarriaren gainerakoa	Tasa (%)
		0,00	0,00	16.030,00	23,00
		16.030,00	3.686,90	16.030,00	28,00
		32.060,00	8.175,30	16.030,00	35,00
		48.090,00	13.785,80	20.600,00	40,00
		68.690,00	22.025,80	26.460,00	45,00
		95.150,00	33.932,80	31.700,00	46,00
		126.850,00	48.514,80	58.100,00	47,00
		184.950,00	75.821,80	Hortik aurrera	49,00
	<b>Aurrezpena</b>	<p>2.500 arte .....%20</p> <p>2.500,01etik 10.000,00 arte..... %21</p> <p>10.000,01etik 15.000,00 euro arte..... %22</p> <p>15.000,01etik 30.000,00 euro arte..... %23</p> <p>30.000,01etik aurrera .....%25</p>			
<b>Kuota orokorraren murrizpena</b>		Zergadunek 1.432 euroko murrizpena aplikatuko dute kuota orokorrean. Autolikidazio bakoitzeko egingo da murrizpen hau.			

Kenkari pertsonal eta familiarrak	<b>Ondorengo ahaideengatik</b> -Lehenengoa -Bigarrena -Hirugarrena -Laugarrena -Bosgarrena eta hurrengoak -Gehikuntza: 6 urtetik beherakoengatik		603 € 747 € 1.261 € 1.490 € 1.946 € 347 €																				
	<b>Seme-alaben urteko mantenua ordaintzeagatik: %15</b> -Lehenengoaren muga -Bigarrenaren muga -Hirugarrenaren muga -Laugarrenaren muga -Bosgarrenaren eta hurrengo bakoitzaren muga		180,90 € 224,10 € 378,30 € 447,00 € 583,80 €																				
	<b>Aurreko ahaideengatik</b>	289 € zergadunarekin bizi denean edo honek egoitza bati diru kopuruak ordaintzen dizkionean aurreko ahaidea bertan bizi dadin etengabe eta modu jarraituan.																					
	<b>Desgaitasunagatik eta mendekotasunagatik</b>	Zergaduna, aurreko edo ondorengo ahaidea, ezkontidea, izatezko bikote-laguna (1) edo zeharkako ahaidea, laugarren mailaraino, hau barne, desgaitua denean edo mendekoa denean, edo 65 urteko edo hortik gorako pertsona desgaitua edo mendekoa zergadunarekin bizi eta aurreko ahaide edo asimilatuen zerrendan sartuta ez dagoenean: • ≥ %33 eta < %65: 867 €. • ≥ %65: 1.224 € edo mendekotasun txikia. • ≥ %75, 15 eta 39 puntu bitartean lortuz hirugarren pertsonen laguntzagatik: 1.428 € edo mendekotasun ertaina • ≥ %75, 40 puntu edo gehiago lortuz hirugarren pertsonen laguntzagatik: 2.040 € edo mendekotasun handia																					
	<b>Zergadunaren adinagatik</b>	Adinaren, Oinarri ezargarriaren (orokorra eta aurrezpenkoa), Murrizpena pentsio konpentsagarriengatik eta aukeratutako tributazio modalitatearen arabera aldatzen den kenkaria. OINARRIA = Oinarri ezargarri orokorra + Aurrezpenaren oinarri ezargarria - Murrizpena pentsio konpentsagarriengatik  <b>Banakako tributazioa</b> aukeratu ez gero, kenkaria honako hau da: <table border="0"> <tr> <td>Adina</td> <td>OINARRIA &lt;20.000</td> <td>20.000 eta 30.000 arteko OINARRIA</td> <td>OINARRIA &gt; 30.000</td> </tr> <tr> <td>&gt; 65</td> <td>346 €</td> <td>346 - 0,0346 x (OINARRIA -20.000)</td> <td>0 €</td> </tr> <tr> <td>&gt; 75</td> <td>632 €</td> <td>632 - 0,0632 x (OINARRIA -20.000)</td> <td>0 €</td> </tr> </table> <b>Baterako tributaioa</b> aukeratu ez gero, kenkaria honako hau da: <table border="0"> <tr> <td>Adina</td> <td>OINARRIA ≤ 35.000</td> <td>OINARRIA &gt; 35.000</td> </tr> <tr> <td>&gt; 65</td> <td>346 €</td> <td>0 €</td> </tr> <tr> <td>&gt; 75</td> <td>632 €</td> <td>0 €</td> </tr> </table>		Adina	OINARRIA <20.000	20.000 eta 30.000 arteko OINARRIA	OINARRIA > 30.000	> 65	346 €	346 - 0,0346 x (OINARRIA -20.000)	0 €	> 75	632 €	632 - 0,0632 x (OINARRIA -20.000)	0 €	Adina	OINARRIA ≤ 35.000	OINARRIA > 35.000	> 65	346 €	0 €	> 75	632 €
Adina	OINARRIA <20.000	20.000 eta 30.000 arteko OINARRIA	OINARRIA > 30.000																				
> 65	346 €	346 - 0,0346 x (OINARRIA -20.000)	0 €																				
> 75	632 €	632 - 0,0632 x (OINARRIA -20.000)	0 €																				
Adina	OINARRIA ≤ 35.000	OINARRIA > 35.000																					
> 65	346 €	0 €																					
> 75	632 €	0 €																					
<b>Egoera pertsonal eta familiarren zehaztapena</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Zirkunstantzia pertsonalak zergaren sortzapen egunean dagoen egoera kontuan hartuz zehazten dira (normalean, abenduaren 31n).</li> <li>Kenkari pertsonal eta familiarrak konputatzeko, kalkulua ez da inoiz ere egingo kenkariak aplikatzeko exijitutako zirkunstantziak urte naturaleko zenbat egunetan gertatu diren kontuan hartuta.</li> <li>Kenkarirako eskubidea sortzen duen pertsona hil bada, zirkunstantzia pertsonalak pertsona horren heriotza egunean dagoen egoera kontuan hartuz zehazten dira. Kenkariaren zenbatekoa ez da egun horretara arte proportzionalki murriztuko.</li> </ul>																						
<b>Kenkaria desgaituaren ondare babestuari egindako ekarpenengatik</b>		Pertsona desgaituen ondarea babesteari buruzko 41/2003 Legean araututako ondare babestuari egindako ekarpenek %30eko kenkaria dute. 3.000 eurokoa da urteko muga.																					
<b>Kenkaria ohiko etxebizitza errentan hartzeagatik</b>	<b>Orokorra</b>	%20 - Muga: 1.600 €																					
	<b>30 urtetik beherakoak (2)</b>	%30 - Muga: 2.400 €																					
	<b>Familia ugaria (2)</b>	%25 - Muga: 2.000 €																					
<b>Kenkaria ohiko etxebizitza inbertitzeagatik</b>	<b>2012/01/01 AURRETIK EROSITAKOAK</b>		<b>2012/01/01 ONDOREN EROSITAKOAK</b>																				
	<b>Kreditu fiskala</b>	36.000 € zergadun bakoitzeko																					
	<b>Orokorra</b>	Inbertsioaren eta finantziazioaren % 18																					
	<b>35/30 urtetik beherakoak (2)</b>	Inbertsioaren eta finantziazioaren % 23																					
	<b>Familia ugariaren titularra (2)</b>	Inbertsioaren eta finantziazioaren % 23																					
	<b>Ohiko etxebizitza inbertitzeak duen kenkariaren muga</b>	Urteko kenkaria 2.160,00 eurokoa da gehienez. Familia ugariaren kasuan edo zergadunak 35 urtetik baino gutxiago dituenean, 2.760,00 eurokoa da muga. Batera aitortzen denean muga hori ez da bikoizten.																					
<b>Etxebizitza kontua</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Epea: 6 urte</li> <li>Saldoa mugitzeko aukera dago, baina abenduaren 31 baino lehen berriro sartu behar da kontuan</li> <li>Kenkaria: % 18 (edozein urtetan irekita dauden arren)</li> </ul>																						
<b>Kenkaria dohaintzengatik</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Orokorrean: %20</li> <li>Lehentasunezko jarduerak: %30</li> <li>Kultur mezenazgoa: %35</li> </ul> Dohaintzengatik aplikatzen den kenkariaren oinarriak ezin du gainditu zergaren oinarri likidagarriaren %30																						
<b>Kenkaria langileen sindikatuei ordaindutako kuotengatik eta alderdi politikoen aldeko kuota eta ekarpenengatik</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Langileen sindikatuei ordaindutako kuotek %20ko kenkaria dute.</li> <li>%20ko kenkaria aplikatzen da alderdi politikoetako afiliazio kuotengatik eta haien aldeko ekarpenengatik.</li> </ul>																						

(1) Izatezko bikotea, maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratu.

(2) Zergadunaren adina edo familia ugariaren titulartasuna zehazteko, zergaren sortzapen egunean dagoen egoerari begiratuko zaio.